

# Zehar

REVISTA DE ARTELENGU-KO ALDIZKARIA



n°51 | 2003

Erresistentzia eta Sorkuntza

Resistencia y Creación

Resistance and Creation

# Zehar

Argitaratzailea

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**  
**DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**  
Edita

Diputatu Nagusia

**JOXE JOAN GONZALEZ DE TXABARRI MIRANDA**  
Diputado General

Kultura Zuzendari Nagusia

**IMANOL AGOTE ALBERRO**  
Director General de Cultura

Artelekuko Zuzendaria

**SANTIAGO ERASO BELOKI**  
Director de Arteleku

Aldizkariaren Zuzendaria

**MIREN ERASO ITURRIOZ / K6 Kultur Gestioa**  
Directora de la Publicación

Koordinazioaren Laguntzaileak

**K6 Kultur Gestioa**  
**GORETTI ARRILLAGA ALDALUR**  
**LARRAITZ MENDIZURI ARBELAITZ**  
Ayudantes de Coordinación

Kolaboratzaile Berezia

**SUELY ROLNIK**  
Editora Invitada

© Testuenak, kolaboratzaileak

**TONY CHAKAR**  
**MARIA JOSÉ BELBELL**  
**MANOLO BORJA**  
**CATHERINE DAVID**  
**INAKI IMAZ**  
**LAYMERT GARCIA DOS SANTOS**  
**BRIAN HOLMES**  
**ARANTXA ITURBE**  
**GABRIELA MASSUH**  
**SUELY ROLNIK**  
**AZUCENA VIEITES**  
**GABRIEL VILLOTA**

© de los textos, los colaboradores

Itzulpenak

**Euskararen Normalkuntzarako Zuzendaritza Nagusia**

**Tisa**  
**LUIS MARI LARRAÑAGA**  
**JUAN MARI MENDIZABAL**  
**BEGO MONTORIO**  
**TIM NICHOLSON**  
Traducciones

Testuen orrazketa

**MAITE CELADA**  
**IDOIA GILLENENA**  
**BRIAN HOLMES**  
**JOE LINEHAN**

Revisión de textos

Diseinua

**LAUREN HAMMOND**  
Diseño

Inprimaketa

**LITOGRAFÍA VALVERDE**  
Impresión

Aurreinpresioa

**ZYMA**  
Pre-impresión

Lege gordailua

**SS.1.104/89**  
Depósito legal

**ISSN 1133-844 X**

© Argitalpenarena

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**  
**DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA**

© de la Edición

Art Bibliographies Modern-ek indizatua

Indizada por Art Bibliographies Modern



AZALA COVER PORTADA

Golo

De la serie The 2nd Intifada (2001)  
seen from the Middle East, 1998-2002

© Golo, 2003

Imàgen cortesia de la Fundació Antoni Tàpies, Barcelona

**zehar** ez du derrigorrez bat egiten kolaboratzaileen iritziekin.  
**zehar** no comparte necesariamente las opiniones de sus colaboradores.



Ale honetan argitaratzen ditugun testu guztiak euskaraz irakurri nahi badituzu, sar zaitetz web orrialdean.

Visita la página web para consultar todos los textos en castellano.

Visit the website for all articles in english.

n°51 | 2003

Erresistentzia eta sorkuntza    Resistencia y creación    Resistance and Creation

EDITORIAL

Erresistentzia eta sormena:  
dibortzio laugarria

Resistencia y creación:  
un triste divorcio

MIREN ERASO

Entrevista a Catherine David ..... 4

Catherine Davidi egindako elkarrizketa .... 8

LAYMERT GARCIA DOS SANTOS

Berritasuna, harridura eta artea ..... 12

Lo nuevo, el asombro y el arte ..... 16

BRIAN HOLMES

Intermittent Revolutions ..... 18

Aldizkako iraultzak ..... 22

Revoluciones intermitentes ..... 25

SUELY ROLNIK

La creación se libra del rufián y  
se reencuentra con la resistencia ..... 28

Creation Quits Its Pimp,  
To Rejoin Resistance ..... 34

CARME ORTIZ

Entrevista a Manolo Borja ..... 38

Manolo Borjari egindako elkarrizketa .... 42

TONY CHAKAR

The present postponed ..... 44

El presente pospuesto ..... 52

GABRIELA MASSUH

Arte de la crisis: Crisis del arte

Krisiaren artea: Artearen krisia ..... 62

netw0rk

en red n69162

Napartheid fanxinoteka Artelekun, odlok-ek idatzia...Kim Cascone,  
Juan Mari Mendizabalek laburbildua, Itziar Okariz por Gabriel Villota  
Toyos...Koldo Almandozen Belarra, Arantxa Iturbek idatzia...Maratón  
Posporno por Azucena Vieites y María José Belbel...Sight Mapping  
(Begi-kartografia), (Cartografía visual)...Inmovilizar el mundo por  
Iñaki Imaz ..... 64



## Erresistentzia eta sormena: dibortzio lazgarria

Munduko kapitalismoak, teknozientziarekin bat eginik, giza bizitzaren esfera ororen ingurumaria birdiseinatu du gaur egun. Politika baldin bada gizarte bizitzaren eraketa moduen, haren zatiketa berrien eta haren sostengu diren arau berrien gaineko polemika burutzea, eta artea eraketa modu hautemangarri horien sormena orientatzen duen aldaketa sentikor ikusezinen hausnarketan jardutea, espero izatekoa da politika, artea eta horien arteko loturak krisian egotea, bai eta horien arazo berriak eta horiei aurre egiteko estrategiak asmatzea ere hitzetik hortzera dabilen gaia izatea.

Zeregin horrek, alabaina, ez du inongo loturarik esferen berrituraketa-ekin eta mugen birnegoziazioarekin. Esferatan antolatutako ordena bera baita bere logika identitarioarekin ezengonkorturik dagoena —giro aproposa, hortaz, politika eta artea giza bizitzaren ahalmen gisa azal daitezten, erresistentzia ahalmena bata eta sormeneko beste—. Kapitalismoak errebelazio hori azkartu du, sormen indarra artearen ghetotik —esfera autonomoa den neurrian— atera eta giza gorputz osotik mobilizatzeaz gain, ospatu egin baitu, eta sormen indar hori bere balio iturri nagusi bilakatu du.


Nolanahi ere, ongi etorria egin baldin bazaio sormen indarra mugarritzen zuten hesien erorketari eta are ongi etorri sutsuagoa hura ospatzeari, halabeharrezko helmuga zuen madarikazioaz askatuta, indar horren sakabanaketa subjektibotasunaren eta horri eragiten dion esperientzia hautemangarriaren disoziazioarekin batera azaltzen da. Horrek ondorio larriak ditu giza bizitzarako: esperientzia hautemangarria baldin bada ate joka datozen eta indarrean dauden existentzia moduen hondamena dakarten munduaren alteritate indarrak gorputzean presente egitea, funtsezkoa da esperientzia hori eskuratzea, bizitzaren jarioak segi dezan beharrezkoak diren moduak asmatzeko. Sormen ahalmenaren aldetik, eskuratze horrek adieraziko dio zer ari den taldearen bizimoduaren baitan sarbidea eskatzen eta zein norabidetan berrantolatu behar den, emantzipazio prozesua bermatzeko. Erresistentzia ahalmenaren aldetik, eskuratze hori bera da jokoan dauden indarrak kokatzen dituen, elkarren aurka jartzen diren munduaren konfigurazio desberdinetan. Eskuratze hori oztopatzeak prozesua eten, eta sormen eta erresistentzia ahalmenen arteko dibortzioa sortarazten du, biak ala biak irteerarik gabeko etorkizunera bultzatuz bizitzaren babesari dagokionez eta, ondorioz, bizitzaren babes bera arriskuan jarri.

Hautemangarria den horren eskuratzetik disoziatutako eta afektu politikotik banandutako sormen ahalmenaren patua asmatze libreko lan indar iturria osatzea da, eta askatasunak, kasu honetan, merkatuak manipula dezan guztiz eskura egotea esan nahi du, hots, kapitalak funtsik gabe utz dezan, horrela balio handiagoa aterako baitio kontrako inolako erresistentziarik sortu gabe.

Erresistentzia ahalmenaren patuari dagokionez, hautemangarria den horretatik disoziatzeak bizitzaren berezko krudelkeria ahaztea dakar, beharrezkoa den guztietan giza existentziaren moduen leherketa dakarrena. Horrela bada, subjektibotasunak ez du hortik erakartzen den egonezina kokatzeko modurik, eta partaide den erresistentzia indarra alferrekoa gertatzen da, are alferrekoagoa prozesu horretan parte hartzen duen sormen indarrarekiko dibortzioaren eraginez. Babesik gabe, subjektibotasunak besteengan proiektatzen du bizitzaren krudelkeria, bai eta gaiztakeriarekin bat egiten ere. Forma dialektikoak harrapatzen du orduan indar politikoa eta aurkakoen arteko gatazka gisa garatzen da: orok errebindikatzen du bere buruarantz ongia eta bestearen aldean kokatzen gaizkia. Balizko ongiaren eta balizko gaizkiaren arteko borroka horretan, irabazlea edozein dela ere, kontserbadurismoaren indarra da garaile ateratzen dena, indarrean dagoen errealitatearen ingurumariari bultzatzen dion desberdintasunetik erakartzen den krudeltasunaren beldur izanik krudeltasuna ukatzen duena, desberdintasuna integratuko lukeen kartografia berriaren sorrera geldiaraziz, eta hori da bizitzaren baieztapenerako prozesu nahitaezkoa. Adostasunaren mundua aterako da garaile —alteritaterik, erresistentziarik, sormenik, bizitzarik gabeko fusioen mundua— zeinaren forma paradoxazkoa totalitarismoa baita.

Zein subjektibizazio-estategiek “sendatzen” ote gaituzte bi disoziazio kaltegarri horietatik: erresistentzia indarraren eta sormen indarraren artekoa batetik, eta indar horien eta horiei dei egiten dien esperientzia hautemangarriaren artekoa bestetik? Zer arazo sortzen ote ditu disoziazio bikoitz horrek praktika artistiko eta politikoen alorrean? Zer estrategiak egiten ote diete kontra? Zer eraginkortasunarekin? Eta, modu zabalagoan, nola ari ote dira hurbiltzen, edo ez, afektu politikoa eta afektu artistikoa praktika sozialen baitan? Azkenik, bestelako zer galdera planteatzen ote dira egun artean, politikan, eta bien arteko harremanetan, lehen aipatutako arazoaz harantzago?

Galdera horietarako erantzunbideak aurkitzea ez da norbanakoek bakarrik burutu dezaketen zeregina. Horrelako lan batek bizitza kolektiboaren ehunduraren baitako esperimentazio infinitesimalak behar ditu. Lan horretan parte hartzea da, hain zuzen ere, Zehar aldizkariaren ale honen asmoa. ❧ —Suely Rolnik





# Resistencia y creación: un triste divorcio

Erresistentzia eta sortuntza

Resistencia y creación

Resistance and Creation

**El capitalismo mundial integrado, en concierto con la tecnociencia, implica un profundo cambio de las formas de existencia humana. Si entendemos la política como el ejercicio de la polémica acerca de las configuraciones de la vida en sociedad, sus nuevos recortes y las nuevas reglas que las sustentan, y si entendemos el arte como el ejercicio de rastreo de las mutaciones de sensación en curso y su presentificación —ejercicio que orienta la creación de nuevas configuraciones de la existencia—, es de esperar que política, arte y sus interfaces estén en crisis. Pensar sus nuevos problemas e inventar estrategias para enfrentarlos está hoy al orden del día.**

La tarea, con todo, nada tiene que ver con la reconfiguración de esferas y la renegociación de fronteras. El propio orden organizado en esferas con su lógica identitaria se encuentra totalmente desestabilizado, por no decir irreversiblemente obsoleto. Un ambiente propicio, por tanto, para que política y arte se revelen en su condición de potencias de la vida humana; respectivamente, potencias de resistencia y de invención. El capitalismo ha precipitado esta revelación al liberar la fuerza de creación del gueto del arte como esfera autónoma y no sólo movilizarla por todo el cuerpo social, sino festejarla y hacer de ella su principal fuente de valor. Sin embargo, si la caída de los muros que confinaban la fuerza de invención es bienvenida y más aún lo es su celebración, que la libera de la maldición a la que estaba destinada, la diseminación del ejercicio de esta fuerza viene acompañada de una disociación de la subjetividad en relación a las sensaciones que la convocan. Esto tiene graves implicaciones para la vida humana: si un bloque de sensaciones es la presencia viva en el cuerpo de las fuerzas de la alteridad del mundo que piden paso y llevan a la quiebra a las formas de existencia vigentes, el acceso a las sensaciones es indispensable para que se inventen formas mediante las cuales la vida pueda continuar fluyendo. Del lado de la potencia de creación, es ese acceso el que indica el rumbo de lo que deberá ser creado para dar consistencia al proceso de emancipación. Del lado de la potencia de resistencia, es también ese acceso el que indica cuáles son las configuraciones de mundo por las que se debe luchar. La obstrucción de ese acceso interrumpe el proceso y provoca un divorcio entre las potencias de creación y de resistencia. Éstas pasan a tener un destino ciego con relación al objetivo para el cual son convocadas: la preservación de la vida. El efecto es que el ejercicio de tales potencias, en vez de promover la expansión de la vida, la coloca en peligro.

El destino de la potencia de creación disociada del acceso a las sensaciones y separada del afecto político es formar un manantial de fuerza de trabajo de invención libre; la libertad, aquí, consiste en que tal potencia esté enteramente disponible para ser instrumentalizada por el mercado, o sea, para ser explotada por su ruñán, el capital, que extraerá de ella una plusvalía sin que se le oponga ninguna resistencia.

En cuanto al destino de la potencia de resistencia, su disociación de las sensaciones le impide reconocer aquello que la convoca: la crueldad inherente a la vida que destruye formas de existencia cada vez que se hace necesario. Así, no teniendo cómo identificar la causa del malestar, la subjetividad es tomada por el miedo y el desamparo y, para aliviarse, proyecta en el otro la crueldad de la vida y la confunde con la maldad. La fuerza de resistencia es entonces capturada por la forma dialéctica y pasa a ejercerse como lucha entre opuestos: cada uno reivindica para sí el poder del bien y fija al otro en el lugar del mal, contra el cual deberá ser dirigida la fuerza de resistencia. En este tipo de ejercicio de la política, que se transforma en lucha entre el bien y

el mal, sea cual fuere el lado vencedor, el resultado es uno sólo: vence la fuerza del conservadurismo, fruto del temor a la crueldad; pierde la vida, cuyo flujo se traba, cuando no es concreta e irreversiblemente interrumpida por el exterminio en nombre de una configuración de mundo tomada como la verdad, configuración que, por suponerse verdadera, se quiere conservar. Es el mundo del consenso —mundo simbiótico sin alteridad, sin resistencia, sin creación: en suma, sin vida— cuya forma paroxística es el totalitarismo, ya sea de Estado o de Mercado.

¿Qué estrategias de subjetivización estarían “curándonos” de estas dos nefastas disociaciones: por un lado, entre la fuerza de resistencia y la fuerza de creación, por otro, entre estas fuerzas y las sensaciones que las convocan? ¿Esta doble disociación qué problemas estaría planteándole a las prácticas artísticas y políticas? ¿Qué estrategias estarían enfrentando esos problemas? ¿Con qué eficacia? Y, más ampliamente, ¿cómo estarían o no reaproximándose el afecto político y el afecto artístico en el conjunto de las prácticas sociales? Finalmente ¿qué otras cuestiones estarían planteándose hoy en el arte, en la política y en sus interfaces?

Encontrar direcciones de respuesta para estas preguntas es tarea que no puede realizarse sólo de forma individual. Un trabajo tal depende de la acumulación de experimentaciones infinitesimales por toda la trama del tejido de la vida colectiva. Participar en este trabajo es la intención del presente número de Zehar. ❧

—Suely Rolnik



## Work in Progress, Work in Transit

### Entrevista a Catherine David

**Esta conversación tuvo lugar en Barcelona el 15 de septiembre, fecha en la que se estaba montando en la Fundació Antoni Tàpies Representaciones Árabes Contemporáneas, Cairo. En la misma Catherine David analizó algunas de las claves de la relación entre producción y visibilidad, de intervenciones dinámicas, de consolidación de plataformas, de velocidades específicas y de escalas, de plataformas flexibles y móviles.**

**ME** Llevas año y medio trabajando en el Witte de With de Róterdam. Durante este periodo has elaborado programas que tratan de analizar diferentes contextos, y los has presentado en diferentes espacios, formatos. ¿Qué relación tratas de establecer entre el edificio, la institución y su programa?

**CD** Intentamos deconstruir la relación sistemática, no forzosamente necesaria: programa/institución/edificio. Witte de With ha creado una plataforma experimental llamada *Work in Transit* para conseguir que su programa sea más accesible al público, y al mismo tiempo, también es un esfuerzo comaricial por formular proyectos contemporáneos que necesitan un acercamiento multidisciplinar y específico. Aunque todavía hay gente que ve un proyecto ligado a Witte de With en otro espacio y se molesta, o, al contrario, gente de

Rotterdam que oye Witte de With y no lo asocia directamente con el edificio que tenemos. Estos temas siempre son complejos pero se pueden resolver con una buena comunicación del proyecto, explicando y denominando lo que se hace. Con un logo, por ejemplo identificando actividades y presencias necesariamente ubicuas.

**ME** ¿Cómo definirías Witte de With?

**CD** Witte de With tiene como misión identificar, comentar, contribuir a producir, difundir y polemizar las prácticas estéticas contemporáneas dentro del amplio ámbito de la cultura visual, y de la cultura en general, y, si es posible, de una cultura entendida no como puro consumo, ni como puro ocio.

Con el programa *Work in Transit* pretendemos hacer más comprensible la información. Para ello hemos hecho pública la documentación y los elementos relacionados con los proyectos y las exposiciones, materiales que sería imposible exhibir en un espacio tradicional de exposición.

**ME** Parece interesante esta manera de entender la cultural, pero ¿cómo concibes este programa en el casi homogéneo paisaje económico-cultural neoliberal del presente europeo?

**CD** Se trata de apostar por una opción no neoliberal. Las propuestas son muy variadas: difundir y transmitir los programas a audiencias heterogéneas, no a una audiencia, sino a audiencias, que hay que atraer y convencer, no de manera publicista, sino sugiriendo invitaciones concretas, haciendo circular imágenes, ideas, poniendo en marcha debates de cierto nivel. En mi opinión, y volviendo al tema del contenedor, no todo tiene que ver con el edificio, quizá más con una



Golo De la serie *The 2nd Intifada* (2001) seen from the Middle East, 1998-2002 © Golo, 2003

institución, o por lo menos con un proyecto. Y aunque se haya debatido mucho sobre el tema, se ha pensado poco, o se ha tratado de manera populista, y, a veces, incluso autoritaria.

Rotterdam está de lleno en este debate: una gran parte de su población no es holandesa, el público potencial es muy heterogéneo, y yo creo que no se trata de dar a cada comunidad lo que se merece o lo que quiere; el tema consiste más bien en trabajar de manera que cualquier sujeto pueda asociar a la noción Witte de With una serie de imágenes, ideas, discursos que le sirvan en su momento actual, en su momento de sujeto, en su momento social, en su momento político. Creo que éste sería nuestro papel, y esto no tiene nada que ver con tener muchos visitantes.

**ME** Éste es un gran reto para un centro tan pequeño como el Witte de With: romper con las sinergias de las instituciones que generalmente asocian el programa a su rentabilidad política.

**CD** Sabemos que hay gente que por muchas razones, culturales o de otra índole, no se acerca al Witte de With pero tampoco creo que el número de visitas tenga mucho interés; me parece que ciertas ideas, ciertas imágenes pueden circular de otras maneras, no solamente en una exposición. Si no hay mucho para exponer, ¿por qué invitar a la gente a que acuda siempre a un mismo lugar, a un lugar que ha sido pensado como espacio expositivo? Esto tenemos que pensarlo bien. Yo creo en la función de agencia, la agencia como dinámica de concepción de ideas y eventos. Las audiencias tienen mucho más sentido en este contexto múltiple. Pero también es verdad que es mucho más difícil de contabilizar, sin embargo lo podríamos hacer con utensilios más científicos, que habría que definir y discutir. Si lo piensas bien, te das cuenta que la audiencia global del Witte de With traspasa, por mucho, el número de gente que visita el centro.

Ciertas ideas, ciertas imágenes pueden circular de otras maneras, no solamente en una exposición.

**ME** ¿En qué público potencial estáis pensando?

**CD** Cuando se habla de público virtual, parece que hablamos del público que se convoca a través de la website y de las actividades en internet. En mi opinión, creo que hay que discutir el vocabulario de vez en cuando, y cambiarlo en el diccionario. La palabra virtual quiere significar, indicar, considerar gente que no sólo reacciona, sino que interactúa con imágenes, programas, ideas, debates. Y la audiencia del Witte, en este caso, no es virtual sino real. La pregunta es ¿qué tipo de comunicación tenemos que entablar para difundir el trabajo del Witte de With para obtener una mayor influencia? No se trata de una cuestión de jerarquía, aquí no estamos en una competición deportiva, se trata de que la acción y las posibles interacciones se amplíen, vayan más lejos. Esto es mucho más de lo que la ecuación edificio-programa-visitantes puede dar.

**ME** Todo lo que estás comentando tiene mucha relación con tu manera de abordar los proyectos, de trabajar con el contexto de manera compleja, y de pensar en su difusión.

**CD** Podríamos hablar de proyectos tipo *Representaciones árabes contemporáneas. Líbano*. En este caso sí fue necesaria una comunicación fuerte, y creo que fue necesaria no para defenderse de que no hacemos publicidad-comunicación, sino para imponer un espacio de acción y visibilidad, pero también para que en el primer momento de articulación del proyecto se pueda posicionar el equipo, y lo pueda conocer el público más cercano. En el caso de *Representaciones árabes contemporáneas*, lo que sí queda bien claro es que la especificidad de las instituciones pequeñas puede ser la de desarrollar metodologías que no sean neocoloniales, paternalistas o políticamente correctas, sino la de desarrollar intervenciones dinámicas que autoricen la consolidación de plataformas ya existentes. Y en este caso, la opción de tipo *Representaciones árabes contemporáneas* es una formulación que denuncia o rebela maneras de pensar que parecen un poco fallidas. Éstas están provocadas por la idea de que cuando la sociedad, por una serie de razones, llega a un momento de visibilidad o desarrollo necesita su arte contemporáneo, y eso lo vimos en el caso de China, en el caso de Asia, en muchos casos, hasta en África, aunque quizá por otras razones porque, francamente, pienso que África sigue teniendo muchos problemas...

Estas maneras de pensar ignoran y casi niegan la existencia de la modernidad como algo complejo y específico; la modernidad fue una historia caótica y seguimos en ella.



Randa Shaath Ahmad Fuad Negm, poet, 1993, de la serie Profiles, 1988-2003 © Randa Shaath, 2003

Y por eso creo que las contemporaneidades diversas no son todas iguales, son similares las unas a las otras pero por eso no dejan de ser modernas. Iba a decir que esa noción de la generación espontánea o del surgimiento de la nada contemporánea me parece problemática, y creo que con *Representaciones árabes contemporáneas* tratamos de consolidar algunas plataformas existentes, que tienen muchos problemas, en lugar de llegar con una especie de propuesta tipo Guggenheim, o, qué sé yo, de: “Bueno, van a ver lo que sabemos hacer para ser modernos. Esto es lo que hay que hacer para estar presentes en bienales”.



Por el contrario, los proyectos en los que estamos trabajando necesitan mucho tiempo, necesitan velocidades específicas, no son proyectos que tienen un impacto inmediato, una visibilidad aplastante y por eso también hay problemas, porque como no puedes imponer de una vez, tienes que negociar con lecturas prematuras o premeditadas, y éste es un trabajo bastante ingrato.

**ME** Y, involucrando a la institución?

**CD** En este sentido, no tengo muchos problemas con la noción de institución, una institución es un utensilio de trabajo, es una plataforma de trabajo, no es una cosa, no es un edificio, no es una cosa eterna, así que hacen falta debates sobre lo que es la institución, porque la institución no puede ser una excusa permanente. Yo creo tanto en las instituciones, como en los grupos o en iniciativas humanas y, como en todo, las hay buenas y malas.

**ME** Inmersos como estamos en una cultura de promoción de marcas y de patrimonialización de contenidos, me parece interesante que estés apuntando cambios que cuestionen los eventos expositivos y estructuras museísticas actuales, y esto es, desde luego, mucho más interesante que una representación de ese cambio. Pero, por otro lado, parece complejo conseguir que se apoyen estas ideas.

**CD** Se trata de identificar y asociar voluntades e intereses, aunque sea más difícil, porque es mucho más fácil y gratificante conseguir dinero para hacer Dan Graham o Andy Warhol; creo que nuestro espacio de trabajo no es éste, y por eso me parece que tenemos que asociarnos a algunos patronos y mecenas que sean especialmente abiertos y que tengan un proyecto de futuro.

También tenemos que encontrar asociaciones, fondos culturales, para establecer plataformas un poco diferentes. Para ello existen fondos europeos, o nacionales, de los ministerios de cultura. Aunque sea mucho más fácil organizar, por ejemplo, un pabellón nacional en Venecia que conseguir su equivalente en euros para un proyecto a largo plazo que tiene visibilidades más escasas y más puntuales. Si conseguimos armar una comunicación que articule visibilidades, publicaciones y que permita la circulación de información, aunque sea un trabajo mucho más fino, esté hecho casi a mano, será posible y mucho más interesantes, sin duda alguna. Y si no lo fuera, creo que, otra vez, hay que plantear el tema de la producción y las producciones, y las diversas escalas. Lo que ahora realmente está en debate es la coexistencia de formatos de diversas escalas. Cuando se comenta que al público no le gusta el cine experimental, se está exagerando porque no es verdad, pero se clausuran los presupuestos. Yo preguntaría: ¿si no hay exhibición, cómo puede gustar o no gustar? Para que a la gente le guste o no le guste tiene que

Yo creo tanto en las instituciones, como en los grupos o en iniciativas humanas y, como en todo, las hay buenas y malas.

encontrarse con un libro, una obra, un discurso o lo que sea. Éste es un tema actual, el que no domine una escala única, una velocidad única. Si uno lo piensa dos veces, en el mundo del capitalismo o poscapitalismo, como uno lo quiera llamar, hay posibilidad de existencia de espacios variados; la cuestión es que todos no tienen la misma rentabilidad.

**ME** Estás hablando de un tipo de programa que se desarrolla a medio plazo, por lo que parece que la institución pública es la única candidata a avalarlo. ¿Ves posible conseguir el apoyo financiero de instituciones privadas que puedan interesarse por estas nuevas maneras de trabajar?

**CD** Bueno, la mayoría de los fondos que recibo son principalmente públicos, pero siendo pragmáticos, vemos que actualmente en Holanda hay fondos variados para literatura o promoción de traducción del árabe; son fondos que no sé hasta cuando van a existir. El tema sería seguir buscando nuevas fuentes de financiación. Pero todo esto hay que pensarlo bien, no puede ser un trabajo pasivo o neutro, hay que saber bien lo que uno hace, hay que dirigirse al más adecuado y montar el presupuesto de la manera más eficaz posible.

**ME** En todas tus palabras está saliendo lo que ya establecisteis en el debate Resistencia y creación; por una parte, la reflexión sobre el presente de una manera no complaciente y, por otra, potenciar cambios desde dentro del propio sistema. Parece que en las organizaciones en las que estás trabajando lo estás consiguiendo. ¿Será porque las ideas que soportan los proyectos son muy sólidas?

**CD** Eso es lo difícil: las agencias culturales, los fondos especiales, cada uno tiene su papel y un proyecto nuevo nunca puede encajar exactamente con el proyecto de una agencia cultural oficial, medio oficial o hasta privada, por eso creo en el trabajo del productor, en su posición, en su función. Cuando digo productor la gente siempre piensa en el cine porque ha sido el modelo dominante del siglo XX. Esto no me molesta mucho, pero en este caso hay que pensar en los productores de los años dorados de Hollywood, de los comienzos del cine, porque aunque sea muy paradójico por llevarnos a modelos que han degenerado bastante, creo que si uno examina un poco la complejidad, el número de acciones, todo lo que articulaba el productor de aquellos años... No creo que sea una vuelta porque la historia nunca vuelve, y no estamos en los años veinte, pero se asemeja en que la función del productor es la interfaz entre la propuesta poética y la realidad. ❧

CATHERINE DAVID es directora del Witte de With de Róterdam.

jatorrizko testua 4. orrialdean

Solasaldi hau Bartzelonan izan zen, irailaren 15ean, Antoni Tàpies Fundazioan Arabiar errepresentazio garaikideak, Kairo muntatzen ari ziren egunean. Solasaldian zehar, Catherine Davidek *Work in Transit* programan garatutako bere proiektuen produkzio eta komunikazioaren klabe batzuk aztertu zituen; ekintza eta ikusgarritasun espazioez aritu zen, esku-hartze dinamikoez, plataformen finkapenez, abiadura espezifikoez eta eskalez, plataforma malgu eta mugikorrez.

M I R E N E R A S O

## Work in Progress, Work in Transit

Catherine Davidi egindako elkarrizketa

**ME** Urte eta erdi daramazu Rotterdamgo Witte de With-en lanean; epe horretan zehar testuinguru desberdinak analizatzeko ahalegina egiten duten programak landu dituzu, eta hainbat espazio eta formatutan aurkeztu dituzu. Zein harreman finkatu nahi duzu eraikinaren, instituzioaren eta zure programaren artean?

**CD** Ahalegina egiten dugu harreman sistematiko eta derrigor ezinbestekoa ez den hau desegiten, programa/instituzioa/eraikina harremana alegia, desegiten. Witte de Withek plataforma esperimental bat sortu du, *Work in Transit* izenekoa, bere programa jendeari atzemangarriago izan dakion, baina aldi berean, komisario-ahalegin bat ere bada, diziplina anitzeko hurbilketa espezifikoa behar duten proiektu garaikideak formulatzeko. Dena den, oraindik bada Witte de Withi lotutako proiektu bat beste espazio batean ikusi eta molestatu egiten dena, edota, aitzitik,

Rotterdamgo bertako jendea, Witte de With entzun eta daukagun eraikinarekin zuzenean lotzen ez duena. Gai hauek beti konplexuak dira, baina proiektuaren komunikazio on batez konpon daitezke, egiten dena azalduz eta berorri izena emanez. Logotipo batez, esate baterako, ezinbestean nonahikoak diren jarduerak eta presentziak identifikatuz.

**ME** Nola definituko zenuke Witte de With?

**CD** Witte de Withen eginkizuna da praktika estetiko garaikideak identifikatzea, komentatzea, produzitzen laguntzea, zabaltzea eta horien inguruko eztabaida piztea, ikusizko kulturaren eta, oro har, kulturaren eremu zabalaren barnean; eta ahal bada, kontsumo huts gisa eta aisia huts gisa ulertutako ez den kulturaren eremuan.

*Work in Transit* programaren bidez informazioa ulergarriago egin nahi dugu. Horretarako jendaurrera atera ditugu dokumentazioa eta proiektu, eta erakusketekin lotutako elementuak; ezinezkoa izango litzateke material hauek ohiko erakusketa espazio batean eskaintzea.

**ME** Interesantea ematen du kultura ulertzeko modu honek, baina, nola koka dezakezu programa hau gaur eta egungo Europako paisaia ekonomiko-kultural neoliberal ia-ia homogeneoan?

**CD** Kontua da aukera ez-neoliberal bat egitea. Proposamenak era askotakoak dira: programak audientzia heterogeneoei zabaltzea eta transmititzea, ez audientzia bati, baizik eta audientzia batzuei; eta horiek erakarri eta konbentzitu egin behar dira, ez modu publizista batez, baizik eta gonbidapen zehatzak iradokiz, irudiak eta ideiak zirkulazioan jarri, gutxieneko maila duten eztabaidak abiaraziz. Nire iritziz, eta edukiontzia gairi atzera helduz, guztia ez dago eraikinari lotua, beharbada lotuago egongo da instituzio bati, edo behintzat proiektu bati. Eta gairi buruz asko eztabaidatu bada ere, gutxi pentsatu da, edo behintzat modu populista samarrean jorratu dira kontuak, are modu autoritarioetara helduz ere zenbaitetan.

Rotterdamen nonahi dugu eztabaida hau: bertako biztanleriaren zati

handi bat ez da holandarra, publiko potentziala oso heterogeneoa da, eta nik uste dut kontua ez dela komunitate bakoitzari merezi duena edo nahi duena ematea, baizik eta lan egitea, edozein subjektuk Witte de With nozioari lotu ahal izan diezaion oraintxe bertan, bere subjektu-unean, bere gizarte-unean, bere une politikoan baliagarri izango zaion irudi, ideia eta diskurtso sorta bat. Nire ustez horixe da gure eginkizuna, eta honek ez du bisitari asko hartzarekin inolako zerikusirik.

**ME** Hau oso erronka handia da Witte de With bezalako zentro txiki-txiki batentzat; normalean programak eta errentagarritasun politikoak elkarrekin lotzen dituzten instituzioen sinergieko haustura lortu behar da.

**CD** Jakin badakigu hainbat jende ez dela Witte de Withera hurbiltzen, arrazoi asko tarteko, bai arrazoi kulturalak bai beste mota batzuetakoak, baina ez dut uste, inolaz ere, bisita kopuruak interes handirik duenik; uste dut ideia batzuk, irudi batzuk, beste modu batzuetan ere egon daitezkeela zirkulazioan, ez soilik erakusketa batean. Erakusteko askorik ez badago, zergatik gonbidatu behar dugu jendea beti toki berera joan dadin, erakusketagune gisa pentsatu den toki batean ager dadin? Hau ongi aztertu behar dugu. Nik sinesten dut agentzia-eginkizunean, ideia eta ekitaldi-kontzepzioarako dinamika den agentzian. Audientziek askoz zentzu handiagoa dute testuinguru askotariko honetan. Baina egia da, halaber, askoz zailagoa dela zenbatzea; egin genezake, hala ere, lanabes zientifikoagoak erabiliz, baina hauek definitu eta eztabaidatu egin beharko genituzke. Ongi pentsatuz gero, konturatzen zara Witte de Withen audientzia globalak oso goitik gaintzen duela zentroa bisitatzen duen jende kopurua.

**ME** Zein publiko potentzial duzue gogoan?

**CD** Publiko birtualaz ari garenean, badirudi ari garela web gunera eta interneteko jardueretara biltzen den publikoaz hitz egiten. Nire ustez, aldiz, hitzak eztabaidatu egin behar dira lantzean behin, eta hiztegiaren aldaketak egin. Birtual hitzak zera esan, adierazi eta azaldu nahi baitu: irudi, programa, ideia eta eztabaiden aurrean erreakzionatzeaz gain, horiexen bidez elkarrekintza ari den jendea. Eta Withen audientzia, kasu honetan, ez da birtuala, baizik eta erreal. Halaz, honakoa dugu galdera: nolako komunikazio mota jorratu behar dugu Witte de Withen lanari zabalkundea eman eta eragin handiagoa lortzeko? Ez da inolaz ere hierarkia kontu bat, hemen ez gaude kirol lehia-keta batean; kontua da ekintza eta elkarrekintza posibleak zabalagotzea, urrunago heltzea. Eta hau eraikin-programa-bisitari ekuazioak eskain dezakeena baino askoz gehiago da.

**ME** Aipatzen ari zaren horrek guztiak oso harreman estua du proiektuei ekiteko, testuinguruan modu konplexuan lan egiteko, eta zabalkundeari buruz pentsatzeko duzun moduarekin.

**CD** *Arabiar errepresentazio garaikideak*. *Libano* motako proiektuez hitz egin genezake. Kasu honetan bai, beharrezkoa gertatu zen komunikazio sendo bat, eta uste dut, gainera, ez zela beharrezkoa izan publizitate-komunikaziorik egiten ez dugula dioen kontu horren aurrean babesteko, baizik eta ekintza eta ikusgarritasun espazio bat ezartzeko; baina baita, halaber, proiektuaren artikulazioaren lehen unean taldea kokatu ahal izan zedin ere, eta publikorik hurrekoenak ezagutzeko modua izan zezan. *Arabiar errepresentazio garaikideak*-en kasuan, argi gertatu da instituzio txikien espezifikotasuna izan daitekeela neokolonialak, paternalistak edo politikoki egokiak ez diren metodologiak garatzea, dagoeneko badauden plataformak finkatzeko lanari bultzada emango dioten esku-hartze dinamikoan bidetik joz. Eta kasu honetan, izan daitekeela bezalako aukerak formulazio bat dira, itxura batean kale egin duten pentsamoldeak salatzeke edo adierazteke. Izan ere pentsamolde horien sortzailea ideia bat da, hots, gizarteak, hainbat arrazoi tarteko, halako ikusgarritasun edo garapen une batera heltzen denean bere arte garaikidea behar duelako ideia; eta hori

Irudi batzuk, beste modu batzuetan ere egon daitezkeela zirkulazioan.

Txinaren kasuan ikusi genuen, Asiaren kasuan, eta askotan baita Afrikan ere, nahiz hemen beste arrazoi batzuk ere bilatu beharko lirakeen zeren eta, bene-benetan, uste dut Afrikak oraindik ere arazo pila itzela duela. Pentsamolde hauek ez dakite, eta ukatu egi-ten dute ia-ia, modernitatea gauza konplexu eta espezifikoki gisa existitzen dela; modernitatea historia kaotiko bat izan zen, eta bertan jarraitzen dugu. Eta horrexegatik uste dut garaikidetasunak ez direla denak berdinak, elkarren antzekoak dira, baina hala eta guztiz ere ez diote moderno izateari uzten. Esan behar nuen sorrera espontaneoaren nozio hori, edota ezerez garaikidearen erretze hori, arazo iturri iruditzen zaidala, eta uste dut *Arabiar errepresentazio garaikideak*-ekin ahalegina egiten dugula egun dauden eta arazo asko dituzten plataformetako batzuk finkatzeko, Guggenheim edo "ikusitako daki-gun egiten modernoak izateko, hauxe egin behar da bienaletan egon ahal izateko" bezalako proposamenen modukorik eskaintzeke, alegia.

Aitzitik, lantzen ari garen proiektuek denbora luzea behar dute, abiadura espezifikoak behar dituzte, ez dira berehalako inpaktuak daukaten proiektuak, ikusgarritasun egundokoaz hornituak, eta horregatik ere hainbat arazo sortzen da, zeren eta dena kolpe batean ezartzerik ez duzunez, irakurketa goiztiarregiekin edo alde zurretik pentsatuekin negoziatu behar baituzu, eta lan hau nahikoa esker txarrekoa da.

**ME** Eta, instituziora itzuliz?

**CD** Maila honetan, arazo askorik ez dut instituzio nozioarekin, instituzio bat lanabes bat delako, laneko plataforma bat, inolaz ere ez gauza bat edo eraikin bat edo gauza betiereko bat. Beraz, instituzioa denari buruzko eztabaidak behar dira, zeren eta instituzioa ezin baita betiko aitzakia izan. Nik instituzioetan sinesten dut, taldeetan eta giza ekimenetan bezalaxe, eta arlo guztietan bezala, onak eta txarrak daude.

**ME** Marken promozioaren eta edukiak ondare bihurtzearen kulturaren murgilduta gauden honetan, interesgarri deritzot gaur egungo erakusketa-ekitaldiak eta museo-egiturak zalantzan jartzen dituzten aldaketak aipatze horri; eta aldaketa horren errepresentazio bat egitea baino askoz interesgarriagoa da, zalantzarik gabe. Baina, zaila ematen du ideia horiek norbaiten laguntza edo babesa izatea.

**CD** Borondateak eta interesak identifikatu eta elkartu behar dira horretarako, zailagoa bada ere, ezen errazagoa eta atseginagoa da, zalantzarik gabe, Dan Graham edo Andy Warhol egiteko dirua lortzea; baina uste dut gure laneko espazioa ez dela hori, eta horregatik iruditzen zait ugazaba eta mezenas batzuekin elkartu behar dugula, irekiak izateaz gain etorkizuneko proiektu bat duten ugazaba eta mezenasekin alegia. Elkarrekin eta kultur fondoak ere aurkitu behar ditugu, plataforma desberdin samarrak finkatzeko. Horretarako badira europar zein nazio mailako diruak, Kultura ministerioetakoak. Baina askoz errazagoa da, esate baterako, Venezian pabilioi nazional bat antolatzea, horrek eurotan duen balioa ikusgarritasun eskasagoko eta puntualagoko epe luzeko proiektu baterako lortzea baino. Lortzen badugu ikusgarritasunak eta argitalpenak artikulatzen dituen komunikazio bat antolatzea, eta horrek informazioaren zirkulazioa ahalbidetzen badu, nahiz askoz lan ahulagoa izan eta ia-ia eskuz egina egon, posible eta askoz interesgarriagoa izango da komunikazio hori, ez bairik gabe. Eta horrela izango ez balitz, nik uste berriro planteatu beharko liritekeela produkzioaren eta produkzioen eta eskala desberdinen gaia. Orain egiaz eztabaidatzen ari dena eskala desberdineko formatuak elkarrekin bizi izatea da. Jendeari zinema esperimentalak gustatzen ez zaiola esaten denean gehiegikeriaz ari gara, ez delako egia, baina aurrekontuak itxi egiten dira. Nik horren inguruan zera galdetuko nuke: nola gustatuko zaio, edo ez zaio, jendeari, ez badu ikusteko modurik? Jendeari zerbait gustatu edo ez gustatzeko, liburu bat, obra bat, diskurtso bat edo dena dela, topatu egin behar du. Hau gaur-gaurko gai bat da, eskala bakar bat edo abiadura bakar bat ez nagusitzearena. Izan ere arreta pixka batez pentsatuz gero, kapitalismoaren edo poskapitalismoaren munduan, nahi duzuen bezala esan, era askotako espazioak egoteko posibilitatea dago, baina kontua da denek ez dutela errentagarritasun berbera.



Anna Boghiguián  
*From Tabrir Square via Tal'at Harb to Mustafa Kamel* 1999  
 © Anna Boghiguián, 2003

Baina hau guztia ongi pentsatu behar da, ezin da lan pasibo edo neutroa izan; ongi jakin behar da norberak zer egiten duen.



*Sherif el-Azma Interview with a Housewife 2001*  
© Sherif el-Azma, 2003

**ME** Epe ertainean garatzen den programa mota bati buruz ari zara, eta badirudi instituzio publikoa dela horri abala eskaintzeko hautagai bakarra. Posible ikusten al duzu lan egiteko modu berri hauetan interesatutako instituzio pribatuen finantzaketa eskuratzea?

**CD** Beno, jasotzen ditudan diru gehienak publikoak dira, baina pragmatikoak izanik, ikusten dugu gaur egun Holandan hainbat diru dagoela literaturarako edota arabieratik itzulpenak egiteko, eta ez dakit horrelakoak noiz arte egongo diren. Kontua izango litza-teke finantzaketa-iturri berrien bila jarraitzea. Baina hau guztia ongi pentsatu behar da, ezin da lan pasibo edo neutroa izan; ongi jakin behar da norberak zer egiten duen, egokienarengana jo eta aurrekontua ahalik eta modurik eraginkorrean muntatu behar da.

**ME** Zure hitz guztietan, dagoeneko *Erresistentzia eta sorkontza* eztabaidan finkatu zenutena agertzen ari da, hau da, alde batetik orainari buruzko hausnarketa adeitasunik gabea eta, bestetik, sistemaren beraren barrenetik abiatuta aldaketak bultzatzeko ideia. Badirudi lan egiten ari zaren erakundeetan lortzen ari zarela. Proiektuek euskarritzat dituzten ideiak oso sendoak direlako ote?

**CD** Hauxe da zailena: kultur agentziek, fondo bereziek, bakoitzak bere eginkizuna du, eta proiektu berri bat sekula ezin zaio zehatz-mehatz egokitu kultur agentzia ofizial baten, erdi ofizial baten edota pribatu baten proiektuari. Horregatik sinesten dut produktorearen lanean, bere kokapenean, bere eginkizunean. Produktore esaten dudanean jendeari beti zinema datorkio gogora, XX. mendeko eredu nagusia izan delako. Ez zait gehiegi axola, baina kasu honetan Hollywoodeko urrezko garaietako produktoreak hartu behar ditugu gogoan, zinemaren hasierakoak, oso paradoxikoa izan arren, nahikoa degeneratutako eruedetara iritsiko garelako, baina nik uste urte haietako produktoreak antolatzen zuen konplexutasunari, ekintza-kopuruari erreparatuz gero... Ez dut uste itzultze bat denik, historia sekula ez delako atzerantz abiatzen eta hogeiko urteetan ez gaudelako jada, baina antzekotasuna badago, hain zuzen produktorearen eginkizuna proposamen poetikoaren eta errealtatearen arteko interfazearena izatea. ◀◀

CATHERINE DAVID Rotterdamgo Witte de Withen zuzendaria da.

**Berritasuna, harridura eta artea****Zertan gelditzen da sormen artistikoa teknozientzia eta kapitala****artearen ohiko eremuetan sartzen hasten direnean? Artea,****Deleuzek eta Guattarik dioten bezala, etorkizun berriak asmatzea****baldin bada, eta ez programaturiko etorkizunak behin eta berriro****errepikatzea, nola bideratu dezakegu joera hori?**

1979an, New Yorken, postmodernismoari buruzko eztabaida batera gonbidatu zutenean, honako hau esanez bukatu zuen bere ekarpena Heiner Müller poeta eta antzerkigileak:

“Esperantzaren lehen adierazpidea beldurra da, berritasunaren lehen agerpena harridura da”.

Müllerren esaldia izango da, apika, modurik hoberena gaiari zuzen eta hitz gutxitan heldu eta nire aztoramena azaltzeko, artea berritasuna agerrarazteko indarra galtzen ari dela iruditzen baitzait. Hobe esanda: berritasuna, gehien bat, artetik at sortzen ari dela ematen du. Hortaz, egungo munduan indar handia duten bi joera aipatu nahi nituzke, artetik kanpo gertatzen denarekiko harridura sorrarazten baitigute: nola hartzen dion aurrea kapitalak etorkizunari, eta nola zabaltzen ari den gerra terrorismorantz, hori baita egunetik egunera espazio handiago irabazten ari den Munduko Ordena Berriaren ezaugarri nagusietakoa.

Azter dezagun lehen joera. Jakina denez, teknozientiaren eta kapital globalaren arteko ituna, informazio eta berrikuntza kontzeptuetatik abiatuta, lanaren berregituraketa, naturaren birprogamaketa, bizitzaren birkonbinazioa eta hizkuntzaren berrituraketa bultzatzen ari da gero eta modu azkarragoan. Itunaren lan eskerga hasi besterik ez da egin, baina ageri duen ikusmoldeak argi adierazten digu teknozientiak eta kapital globalak egon dagoena eskuratzeko moduko lehengai bilakatzeko irrika dutela. Are gehiago: itunari esker teknozientiak eta kapital globalak gero eta arreta handiagoa ematen diote errealtatearen dimentsio birtualari eta hura kartografiatzen eta luze-zabal miazten saiatzen dira, birtuala den horretatik eguneratu behar dena kontrolatzeko. Galdera sortzen da orduan: zertan gelditzen da sormen artistikoa bizitza sortzeari berari eragiten dion prozesu batean, giza izaera bera konkistatzeko eskubidea berarentzat gordetzen duen prozesu batean? Ematen du garapen teknozientifikoa artea zapaltzen hasi dela eta haren sortzeko gaitasuna konfiskatzen, berrikuntzari berebiziko garrantzia ematen baitio...

Hori gertatzen ari den susmoa erraz baieztatzen da beste alorretan gertatzen denarekin erkatuz gero. Duela gutxi, gizarte zibilari eta espazio publikoari buruzko mintegi batean, zientzialari politikoak oso





Joban Grimonprez "Dial H-I-S-T-O-R-Y" 1998

artega daudela konturatu nintzen. Haien esanetan, 90eko hamarkadaren erdialdera arte, merkatuari eta Estatuari aurre eginez irmotzen zen indar askatzailearen adierazpen modura ikusten zen gizarte zibilarren kontzeptua; zentzu horretan, kontzeptuak balore baikorra, iradokitzailea, bai eta utopikoa ere, bazuen. Harrezkero baina, ahulduz joan da indar hori, bai Estatuak bai merkaturaren kontzeptuaz eta hark izendatzen zuen dinamikaz jabetzeko eta guztiz funsgabetzeko gauza izan direlako: egun, gizarte zibilarri dei egiten zaio Estatuarekin eta merkatuarekin batera lan egin dezan, haiek zehaztu eta ezarritako politikak burutzeko. Horrela, prozesu emantzipatzailea zena prozedura arautzailea bilakatu da. "Utopien arrazionalizazioa" esan ohi diote soziologoek "berreskuratzeko" mota horri; baina urrunago omen doa zientzialari politikoek deskubritu dutena: haiek gizarte zibilarri indar sozial berri gisa izan lezakeen paperaz teorizatzen ari zirelarik, Estatuak eta merkatuak hartua zioten ordurako aurrea haren ahalmenari, bai eta bideratu ere, ez ihardespenerantz, *statu quo*-a finkatzeko saiorantz baizik. Ondorioz, gizarte zibilarri kontzeptuaren kritika bultzatu beharrean daude orain zientzialari politikoak, galdutako denbora berreskuratu beharrean.

*Insight* haren ondoren, *Hiriak eta Utopia* gaia zuen nazioarteko mintegi batean ikusi ahal izan nuen arazo berari buru egiten ziotela han ziren adituek. Hiri jasagarria zuten pentsatuta haiek, kapitalak hiri ideal eta jarraitu beharreko eredu gisa eraikitako hiri

globalaren alternatiba modura. Baina hiri sostengarria kontzeptua finkatu baino lehenago ere, Estatuak eta merkatuak proposamen berria bilakatu zuten: "hiriak saldu" eta, horrela, murgilduta zeuden krisia "gainditu". Behin berriro ere, merkatuaren logikak ahalmen horri aurrea hartu eta kapitalizatu egin omen zuen, eta Estatuak, dimentsio publikoa "ahazturik", logika horretara lerratu eta bultzatu besterik ez zuen egin.

Aurreko bi adibideetan zirriborraturiko aurre hartze hori artearen alorrean ere gerta daitezkeen kontuan hartuta, gai erabakigarria gertatzen da sortzaileentzat: kapital globala eta teknozientzia gauza baldin badira sinesgarritzeko errealitatearen dimentsio birtuala kontrolatzen dutela, baldintzaturik geldituko da sormen prozesua, haiek esango baitute zein ahalmen eta nola eguneratu behar diren. Eta, itxura guztien arabera, artearen sistemak ez dio ihes egiten dinamika horri: orain gutxi arte, lan ospetsuei edo artearen historian sar litezkeenei ematen ziren arretarik gehien arte merkatuak; baina duela urte batzuetatik hona, asko handitu da gaur egungo artearekiko interes prospektiboa, bai eta goi finantzetan ere. Nola azaldu hori, arte horrek askotan lan salgarriak sortzen ez badu eta erakusketekin batera desagertzen bada? Susmoa badut sektore horiek ulertu dutela jada birtuala denaren eta gaurkoa denaren arteko interfazea aztertzeko modua dela artea eta, hortaz, kontrolatu eta jabetu beharreko modua dela, hitz batean, otzandu beharrekoa, barne muinetik hasita.

Egun, gizarte zibilarri dei egiten zaio Estatuarekin eta merkatuarekin batera lan egin dezan.



Baina, artea, Deleuzek eta Guattarik ziotenez, etorkizun berriak asmatzea baldin bada, eta ez programaturiko etorkizuna behin eta berriro errepikatzea, zera galde dezakegu: nola jarki? Nola aldatu joera hori, nola berbideratu, nola gauzatu aldaketa?

